

GURASOEN ALIENAZIO SINDROMEAK

Tratu txarra jaso duen ama sistemak berriz jipoitzen duenean

 **JENDARTEA** / Amagoia Mujika Telleria

Gurasoen Alienazio Sindromea, AEBetatik ekarri zuten elkarte matxistek Genero Indarkeriaren Aurkako Lege Integralaren parean, horri indarra kentzeko. Ez dauka oinarri zientifikorik eta Osasunaren Mundu Erakundeak berak arbuiatu egiten du, baina banaketa eta dibortzio prozesuetan erabili egiten da –beste izen batzuekin–, eta helburu garbia du: amaren eta seme-alaben hitzari indarra kentzea normalean tratu txarrak leporatzen zaizkion aitaren mesedetan. Egoera latzak sortzen ditu.

Dibortzio eta banaketan %20 inguru gatazkatsuak izaten dira eta epaitegitara iristen dira. Kasu horietan, bostetik batean seme-alabak izaten dira tartean. Eta haustura horien artean, badira tratu txarren edota abusuen salaketak eta baita epai irmoak ere. Batzuetan emakumeen

kontrako tratu txarrak eta abusuak dira eta beste batzuetan baita seme-alaben kontrakoak ere. Familia-bitartekaritza ezin da existitu indarkeria matxistaren kasuan, hala jasotzen du Genero Indarkeriaren Aurkako Lege Integralak. Izan ere, tratu txar emaile den gizonezkoak haurraren zaintza bere gain har dezake? Galdera hori jartzen du mahai gainean behin

Tratu txarren salaketak egon diren kasu askotan aplikatzen da Gurasoen Alienazio Sindromea. Ondorioz, haurraren zaintza kentzen zaio amari gehienetan. GAUR8

eta berriz Ester Ruiz Martinek, Gurasoen Alienazio Sindromearen kontrako Luna Plataformako koordinatzaileak. Gurasoen Alienazio Sindromearen atzaparrak bere azalean sufritu zituen duela urte batzuk. Orain, bere alaba adinez nagusia denean eta haren zaintza arriskuan ez duela, egoera latz horretan dauden emakumeei babesa eta bultzada emateko lan nekaezina egiten du.

Baina, zer da Gurasoen Alienazio Sindromea? AEBetatik dator eta Richard Garner psikiatrak asmatu zuen 1985ean. Banaketa eta dibortzioetan seme-alaben zaintzari lotutako gatazketan aplikatzen da, nagusiki, tratu txarren eta abusuen salaketak tartean direnean. Oinarrian, honakoa esaten du: haur batek gurasoetako batekin egoteari uko egiten badio, beste gurasoak manipu-

latu egin duelako da. Kasuen gehiengo zabalean ama jotzen da manipulatzailerat. Prisma horren arabera, amak hain gogor manipulatu du haurra, txikia tratu txarrak edota abusuak “asmatzera” iristen dela. Gurasoen Alienazio Sindromearen begietara, ugariak dira ama gezurtiak eta irudimen biziko haurrak dibortzio prozesu gatazkatsuetan.

KONTRAERASO BAT

«Estatu espainolean Genero Indarkeriaren Aurkako Lege Integrala indarrean sartu zenean, aurretik AEBetatik zetorren mugimendu batek indarra hartu zuen. Kontraeraso bat bezala ulertu behar da eta emakumeen eskubideen aldeko borroka oztopatzea da helburua. Botere ekonomiko handia duten elkarte matxistek bultzatzen dute Gurasoen Alienazio Sindromea, beren ideologia eta pentsaera zabaltzeko. Oinarrian dagoen ideia da emakumeek indarkeria matxista salaketa faltsuak jartzen dituztela eta zaintza partekatua dela aukerarik onena. Gurasoen Alienazio Sindromearen arabera, emakumeek seme-alabak manipulatu dituzte aitaren kontra hitz egiteko eta aitarekin joateari uko egiteko. Kontramugimendu bat da eta helburu garbia dauka: Genero Indarkeriaren Aurkako Lege Integralak ez dezala egin behar duen bidea egin, edo ez behintzat espero den abiadan eta emaitzekin. Horren ondorio dira gertatzen diren egoera hauek guztiak», azaldu du Ester Ruizek.

Banandutako aiten elkarte jakinek ekarri zuten AEBetatik Estatu espainolera. «Ordurako munduko elkarte zientifiko



Gurasoen Alienazio Sindromearen arabera, haur batek gurasoetako batekin egoteari uko egiten badio, beste gurasoak manipulatu egin duelako da. Ama jo ohi da manipulatzailatzat

Oinarri zientifikorik gabeko sindromea da. Ez da existitzen, baina horren arrastoa eta zama oso nabarmenak dira tratu txarrak salatu diren dibortzio eta zaintza prozesuetan

guztiek baztertuta zuten Gurasoen Alienazio Sindromearen existentzia bera. Ez dago munduan elkarte zientifiko edo psikologiko bakar bat ere sindrome hori existitzen dela onartzen duenik, ez dauka inongo zilegitasunik eta Osasunaren Mundu Erakundeak berak baztertu egiten du».

BESTE IZEN BATZUEKIN MOZORROTUA

Oinarri zientifikorik gabeko sindromea da beraz. Ez da existitzen, ez dago era horretako sindromerik, baina horren arrastoa eta zama oso nabarmena da tratu txarrak salatu diren dibortzio eta zaintza prozesuetan. Ruizek garbi dauka: «Epaitegietako talde psikosozialen bitartez joan da sartzen sistema judizialean, familiako elkarguneen bitartez. Hor egiten dira bisiten trukeak. Zerbitzu sozialen bitartez sartzen joan da haurtzaroko departamentuetan. Haurraren zaintzarekin lotutako erakunde guztietan dago. Ez zaio Gurasoen Alienazio Sindrome esaten, mozorrotu egiten da: instrumentalizazioa, amaren manipulazioa, kezka morbidea, leialtasun-gatazka... era askotako izenak jartzen dizkiote». Izenak izen, denak dute helburu bera: amaren eta haurraren hitza kolokan jartzea eta haien arteko lotura ahalik gehien etetea.

«Egoera orokortua da, arau nagusia. Salbuespena bestea da, egoera hau ematen ez dena. Badira kasu oso larriak, aita tratu txarreatatik kondenatuta egon eta elkarguneetan ematen dira bisitak. Txostenek aita maitagarri bati buruz hitz egiten dute. Aitak seme-alabak ere jotzen zituen eta seko beldurtuta daude. Bisita gunera iritsi eta gainean pixa egiten dute beldurraren beldurrez. Eta txostenek ez dute jasotzen benetan gertatzen ari dena».

Oinarri zientifikorik ez, baina zutabe matxista eta patriarkal garbiak dauzka asma-zio horrek. «Helburua da aitaren figura ez dadila desagertu seme-alaben bizitzatik. *Pater familias* delakoaren figura babesten duen baliabidea da. Erreferentzia figura hori ez dadin desagertu. Esaten denean sistema judiziala patriarkatuaren gainean eraikia dagoela, horrelako egoerei buruz ari gara. Opus Deikoak diren eta ideologia oso kontserbatzailea duten epaileei buruz ari gara. Haien begietara tratu txarrak salatzen dituen emakumea deabrua da, manipulatzaila eta gezurtia», jarraitu du Ruizek.

Bistan denez, haurtzaroaren inguruan lan egiten duten profesional askoren konplizitate behar du errealitate horrek. «Bai, eta konplizitate hori existitzen da. Une batean



Gurasoen Alienazio Sindromearen kontrako plataformek begietan hartuta dituzte familia elkarguneak. Andoni CANELLADA | FOKU

haurtzarora bideratutako zerbitzu sozialak azpikontratatu egiten dira eta irabazi asmorik gabeko elkarteen eskuetara jotzen dira. Elkarte horien ia guztiak ideologia katoliko eta kontserbadoretik oso gertu daude. Dibortzioa onartu egiten dute, baina familiaren egituraren alde egiten dute zorrotz. Familia mantendu behar da denaren gaineratik. Bananduak egon arren eta bananduak bizi arren, aita eta ama familiaren parte dira eta aita defendatu eta errespetatu behar da denaren gaineratik. Aitak akats bat egin zuen, denok egiten ditugu akatsak, eta barkatu egin behar dira. Barkamenaren zentzua oso bizirik dago. Aita guztiek errieta egiten dute eta aita guztiek jotzen dute. Hori normala da. Ama da nahastuta dagoena eta laguntza behar duena. Amare-

kin egin behar da terapia eta amarekin lan egin behar da. Hori da oinarrian dagoena», azaldu du Luna plataformako ordezkariak.

Behin honetara iritsita, garbi utzi nahi izan du ez dela aita guztiez hitz egiten ari. «Inork ez du fokua jartzen bere egitekoa benetan arduraz betetzen duen aitaren gainean. Tratu txarreatatik kondenatuak dauden aitei buruz ari gara, seme-alabekin ardurarik gabe jokatzeko duten aitei buruz. Badira seme-alabez inoiz kezkatu ez diren aitak eta dibortzioa iristean hasten dira haiekin kezkatzen. Kasu askotan ez dakite zein neurritako kamiseta behar duten, zein den bere irakaslea eta bat-batean aitatasun sentimendua pizten zaie. Ez dira inoiz aita izan, baina dibortzioaren ordua iristean aita maitagarri gi-

sa agertzen dira epaitegietan, elkarguneetan eta eta zerbitzu sozialetan. Aitatasuna beti arduraz bete duen gizonarengan ez gara fokua jartzen ari. Horrek, noski, edozein ama onek dituen betebeharrak eta eskubide berak izan behar ditu».

Eta berriz jarri du galdera mahai gainean Ester Ruizek: «Amari eta seme-alabei eraso egin dien aita ez ote da ari seme-alaben zaintza erabiltzen amari tratatu txarra ematen jarraitzeko? Eta baita seme-alabei ere. Askok dira gaizki zainduta etortzen direnak, zorritzosita, gaizki artatuta. Horieta asko bikote berriaren eskuetan edo aiton-amonen eskuetan geratzen dira sarri. Aitak ez ditu zaintzen».

MEHATXU BIDEZKO TERAPIA

Gurasoen Alienazio Sindromea edo izen desberdinekin oinarritutako bera duten tresnak erabiltzen direnean, amaren eta seme-alaben hitzak indarra galtzen du. «Hori aplikatzen den unetik, emakumeak edota seme-alabek esaten duten edozer gauza prisma horretatik ikusten da. Hortik aurrera, emakumearen edo seme-alaben hitzak ez du ezertarako balio. Gezurteroak dira, irudimentsuak eta gezurra esaten dute aitari kalte egiteko. Aita gaitasun handikoa da eta dohainez betea. Aldiz, amak ez dauka inongo gaitasunik eta seme-alabek, ama kontentatu nahi dutenez, gezurra esaten dute».

Ustezko sindromearen kontra hartu ohi diren neurriak latzak dira. Haurrari sekulako presioa egiten diote bere kontaktetan amore eman dezan, ez dezan aita baztertu. Normalean, zaintza sistema aldatzen da. Erakunde publikoa arduratzen da haurraren tutoretzaz eta arbuiatzen duen gurasoa-



Kasu askotan, seme-alaben zaintza amari tratatu txarra ematen jarraitzeko bide bat bihurtzen da. GAUR8

rekin bidaltzen du, aitarekin. Amari, berriz, zaintzapeko bisita ordu batzuk baino ez dizkiote ematen. Gurasoen Alienazio Sindromea aplikatzen den unetik, amari indarrez haurra kentzea ohikoa da.

«Mehatxu bidezko terapia erabiltzen dute. Helburua da haurrak amore ematea eta ez esatea amarekin bueltatu nahi duela. Bizitzarik gabeko gizaki bihurtu nahi dute, kezkatzen ez dena eta egoera barneratzen eta onartzen duena. Amarekiko aldentzea bilatzen da, berdin izatea ama ikusi edo ez ikusi. Une hori iristen denean, haurra 'desprogramatu' dutenean, helburua lortu dute», azaldu du Ruizek.

Luna Plataformatik urteak daramatzate Gurasoen Alienazio Sindromearen kontrako borrokan. «Hau ez da berria. Gobernuak, alderdiek, justizia departamentuek... denek dakite hau gertatzen dela. Horren kontra egitea oso zaila da. Sekulako lana egiten ari gara errealitate hau ezagutzera emateko. Komunikabideen

aldetik ere harrera epela da, ez da samurra gure diskurtsoa zabaltzea. Oso konplikatu da gertatzen ari zaiguna azaltzea. Urte askotako lana egin dugu eta egia da sare sozialek asko lagundu digutela. Mundura ireki ahal izateko atea izan dira», gaineratu du.

Izan ere, salatzen dutenaren arabera, haurraren ongizatea zaindu behar duten erakundek haurrarentzat babesgabetsun erabatekoa sortzen dute. «Erakundeak konplize dira. Nola da posible hau gertatzea 2020. urtean? Ez da sinesgarria. Oso zaila da jendeari ego-

era honen berri ematea eta jendeak ulertzea».

Oso zaila da egoera ulertzea eta horren jabe egitea emakumeok estigmatizatuta daudelako jendartearen begietara. «Lehenik tratatu txarrak jasan dituzula eta umiliatua izan zarela barneratu behar duzu. Zazpaldia izan zarela eta horregatik dibortziatu zarela. Hori da lehen estigma. Eta, gero, gainera, haurraren zaintza kendu dizutela kontatu. 'Inori ez diote kentzen haur bat, zerbait oso gaizki egingo zuen ama horrek epaile batek haurraren zaintza kentzeko'. Pentsa noraino sentitzen zaren umiliatua. Oso zaila da inori azaltzea hori gertatu zaizula sistema justu aldarrikatzen duenaren kontra ari delako lanean. Ez da egia haurra babesten ari denik. Haurra tratatu txar emalearekin bidaltzen da eta ama elkargune batean ikus dezake bi orduz eta hezitzaile batekin. Eta ez esan haurrari maite duzula eta ez erantzun ea zurekin noiz bueltatuko den galdeztzen dizunean, bestela deia moztuko dizute. Hau gertatu egiten da», salatu du Ruizek.

Luna Plataformako ordezkariak garbi dauka nork jipoitu zuen bere kasuan. «Erakundeen indarkeria da. Erakundeak dira emakumeen kontrako indarkeria egiten dutenak. Nire alabaren aitak sistema erabili zuen, sistemak eskura jartzen dizkion baliabideak. Baina tratatu txarra ematen diguna, heriotzaz zauritzen gaituena, sistema da. Alaba indarrez kendu zidana sistema judiziala izan zen. Ez gintuen inoiz babestu, ez ni ezta alaba ere».

Orduan, non aurkitu dezake argi poxi bat tratatu txarrak sufritzen dituen amak? «Bide luzea dugu egiteko», bukatu du Ester Ruizek.

«Inork ez du fokua jartzen bere egitekoa arduraz betetzen duen aitaren gainean. Tratatu txarrengatik kondenatuak dauden aitei buruz ari gara, ardurarik gabe jokatzeko dutenei buruz»

«Oso estigmatizatuta gaude. Haurraren zaintza kendu dizutela kontatu eta jendeak pentsatzen du: 'inori ez diote kentzen haur bat, zerbait oso gaizki egingo zuen ama horrek'»

IRUNE COSTUMERO

ALABAREN ZAINZA LORTZEKO BORROKAN

«Makineria guztia nire kontra jarri dela sentitzen dut. Fokua niregan jarri dute»

Abuztuaren 4an beteko dira hiru urte. «Nire bizitzan pasatu zaidan gauzarik txarrena da. Bere azalean sufritu ez duenak ezin du jakin zer den bortxaz zure alaba besoetatik kentzea. Nire parte bat galtzearen parekoa izan zen. Indarkeria bortitza erabili zuten. Trikimailuak erabiliz eta azalpenik eman gabe deitu ninduten eta Poliziaren laguntzarekin eta sekulako indarkeria erabiliz kendu zidaten bost urteko alaba Bizkaiko Foru Aldundiko Umeen Zerbitzukoek». 2017ko abuztuaren 4a zen. Geroztik, «hilda bizirik» dagoela sentitzen du Iruene Costumerok.

Borroka latza egiten ari da alaba berriz bere ondora ekartzeko. Borroka latza bezain luzea, hiru urte ez direlako alferrik joan. Haurrak orain zortzi urte dauka. Bizkaiko Aldundiak dauka behin-behineko zaintza eta aitak, behin-behineko egonaldia. Amak orduka ikusten du eta duela gutxira arte beste norbaiten zaintzapean, «ezin nuen ezta komunera joan alabarekin bakarrik». Hiru urteotan amak eta alabak ez dute pasatu gau bakar bat elkarrekin, ez astebururik ez oporrik.

Costumeroren borrokak eman du fruiturik. Bizkaiko Aldundiko Umeen Zerbitzuko lau langile inputatuta daude prebikazioa, tratu txarrak eta lesio psikikoak leporatuta. Gizarte Ekintzako diputatua, Sergio Murillo, da inputatuetako bat. Inputazio autoak jasotzen duenez, Costumerori alaba besoetatik kendu zion foru agindua ez ditu bete «proporzionaltasun irizpideak», «indarkeriaz» aritu dira, Aldundiaren txostena «ez dator errealitatearekin bat» eta haurraren «ondorio larriak» sor ditzake egoera horrek guztiak. Era berean, autoak zehazten du Gurasoen Alienazio Sindromea erabili dela eta emakumeen eta haurren kontrako



Aritz LOIOLA | FOKU

eskubideen kontrako eraso garbia dela hori.

Arazoa da prozesu penalaren parean prozesu administratiboa dagoela martxan. Tramite administratiboa askoz luzeagoa da, asko luzatu daiteke gainera, administrazioak berak luzatu dezakeelako. Judiziala azkarrago joaten da. Costumeroren kasuan, tramite judiziala geratuta dago. Zerbitzu sozialen esku hartzea egonenez, tramite judiziala geratu egin zen, administratiboa ebatzi zain. Baina

epaiketa datarik ez dagoenez, prozesu administratiboa ez da ebatzen. Ondorioz, hiru urte daramatza epaiketa penal baten zain. «Epaiketan inputatuak daudene txostenak egiten jarraitzen dute Bizkaiko Aldundiko Umeen Zerbitzuan, pentsa. Nire epaiketan inputatuak dauden horiek nire bisiten eta zaintzarako baldintzen inguruko erabakiak hartzen jarraitzen dute. Nola izan daiteke hori?», salatu du haserre Costumerok.

Costumeroren eta bere alabaren

bizitzak ertz oso mingarriak dauzka. Egoera gogorak sufritzea egokitu zaie. «Alabak 17 hilabete zituenean aitak bahitu egin zuen eta hiru hilabete egon nintzen haurra ikusi gabe, bizirik edo hilda zegoen jakin gabe. Ondoren epaiketa bat egon zen eta epaileak zaintza partekatua ematea erabaki zuen, astebete guraso bakoitzarekin. Haurra guraso batetik bestera pasatzeko tokia topagune bat izatea ere erabaki zuen eta aste tartean bisitak zehaztu zituen. Haurrak bi urte bete baino lehen zaintza partekatua erabaki zuen, beraz, epaile batek».

Aurretik Iruene Costumerok bere bikotekidea zenaren kontrako tratu txarren salaketa jarria zuen. «Frogak banituen, baina lekukorik ez. Etxean biok bakarrik geundela gertatu zen eta epaileak ebatzi zuen ezin zela frogatu».

Haurra oso txikia zenetik hasi zen esaten ez zuela aitarekin joan nahi. «Haurra oso hitzuna izan da betidanik eta oso txikitatik hasi zen gauzak kontatzen. Aitak ematen zion tratua ez zela ona esaten zuen eta sekulako amesgaiztoak izaten zituen gauetan. Astea aitarekin pasatzetik etortzen zenean, bizpahiru egun behar izaten zituen lasaitzeko. Gaizki lo egiten zuen, botaka egiten zuen... eta pixka bat lasaitzen eta baretzen hasten zenerako, astea pasatu eta berriz joan behar zuen aitarekin. Haurrari asko kostatu zitzaion egoerara egokitzea. Nik uste dut zaintza partekatua egokia dela bi gurasoen artean gutxieneko ulermen maila bat dagoenean. Baina ez dagoenean harremanik...».

Testuinguru horretan eman zen zaintza partekatua haurrak bi urte zituenetik bost urte zituenera arte. «Tarte horretan haurra hirutan etorri zen elkargunera ubeldurekin. Topagunearen barruan, hango langileen aurrean, haurrak esan zuen aitak jo egin zuela. Oso triste zegoen eta behin eta berriz aipatzen zuen aitarekin gertatutakoa. Erietxera joan nintzen. Egoera azaldu nuen eta tratu txarren protokoloa martxan jarri zuten. Forentseak guardiako epaileari abisua eman zion, baina epaileak

erabaki zuen ez zela hain larria izan eta aitarekin bueltatzeko arazorik ez zegoela». Egoera horiek behin eta berriz errepikatu dira eta hirutan aktibatu dute erietxean tratu txarren protokoloa kasu honetan.

FOKUA, EMAKUMEENGAN ETA HAURRARENGAN
Haurraren aita epaitua izan zen tratu txarren susmopean. «Harrigarria da epaileek izan duten jarrera. Eta guztiak emakumeak izan dira. Berehala fokua niregan eta haurraren gan jarri dute. ‘Haurra gezurtia al da?’, ‘haurra irudimentsua al da?’ eta era horretako galderak egin zizkioten epaiketa horietan aitari. Osakidetzak zabaldutako txostenak aitak tratu txarrak ematearen beldurra azaleratu arren, epaitegietan susmo horri buelta eman eta niregan eta haurraren gan jartzen zuten fokua. Gu ginen gezurtiak eta asmatzaileak».

«Haurraren pediatriak, jaioz geroztik artatu duenak, txosten garbia egin zuen haur hori tratu txarrak jasaten ari zen susmoak azalduz. Osakidetzan ere primeran artatu gaituzte eta ez dute zalantzarik izan. Haurraren kontaketa garbia izan da beti. Baina epaitegietan beste norabide bat hartu izan dute salaketek».

Egoera gero eta gogorrago jarri, haurrak orduan eta ozenago esaten zuen ez zuela aitarekin joan nahi. «Elkargunera eramaten nuenean, aitarekin astea pasatzeko, haurrak bere beharrak gainean egiten zituen eta garbi adierazten zuen ez zuela aitarekin joan nahi. Elkarguneko langileen mezua honakoa zen: ‘Haurrak lasai joan behar du aitarekin. Zuk ikusi zer egiten duzun’. Orduak eman izan ditut umea lasaitu nahian, baina alferrik. Maiz anbulantzia bati deitzeko zorian egon izan naiz, sekulako antsietate krisiak izaten zituelako. Azkenean, haurra hartu eta etxera bueltatzen nintzen, ezin nuelako egoera hartan utzi». Egoera hori gertatzen zen aldiro, aitak salaketa bat jartzen zuen.

«Bizkaiko Audientzia Probintzialak auto irmo bat egin zuen esanez nik,

amak, zaintzaren akordioa betetzen nuela, haurra elkargunera eramaten nuelako. Amak bere egitekoa betetzen zuela. Autoak dio haurra zela egoera horretan jartzen zena eta ikertu egin behar zela zergatik».

Baina auto irmo hori kaleratu baino lehen indarrez kendu zioten alaba Bizkaiko Aldundiko Umeen Zerbitzutik. Ordurako Gurasoen Alienazio Sindromearen itzala jarria zuen sorbalda gainean eta amaren eta haurraren jokaera guztiak iragazki horretatik ikusten zituen Aldundiak: ama gezurtia da, haurra irudimentsua eta amak manipulatu egiten du. Amak buruan sartzen dizkion gezurrak esaten ditu haurrak aitaren kontra.

Berez Gurasoen Alienazio Sindromea ez da existitzen, inongo erakunde zientifikok ez du zilegi jotzen eta bere horretan ezin da erabili. Baina beste izen batzuekin mozorrotzen dute. «Euskal Herrian Balora da haurren babesgabetasuna neurtzeko erabiltzen den tresna. Balora horren baitan jasotzen da ‘gatazkan dauden guraso-figuren instrumentalizatzea’. Hau da, Gurasoen Alienazio Sindromea izendatzeko beste modu bat. Hori aplikatzen dutenean gertatzen da haurra bortxaz kentzea. Existitzen ez den sindrome bat erabiltzen dute. Niri hori leporatu zidaten, foru agindu baten bitartez. Nik horri kontra egin nion eta prozesu bat dago zabalik bide zibilean. Horrez gain, bide penalean ere salatu dut egoera».

Prozesu administratiboa eta prozesu penala noiz ebatziko zain, Costumerok hiru urte daramatza alabaren zaintza izan gabe. «Dena behin-behinekoa da. Baina, bitartean hiru urte joan dira eta nire alaba ez dago nirekin».

AMAK EGITEN DUEN GUZTIA, EPAITUA
Bitartean Bizkaiko Audientzia Probintzialak hiru auto irmo eman ditu Costumeroren alde eta Aldundiko arduradunen kontra, 2017an, 2018an eta 2019an. Baina, lehen aipatu bezala, prozesu administratiboa konpondu arte, prozesu penala geratuta dago. «Oso susmagarria da hiru urtez

«Harrigarria da epaileek izan duten jarrera. Eta guztiak emakumeak izan dira. Berehala fokua niregan eta haurraren gan jarri dute. ‘Haurra gezurtia al da?’, ‘haurra irudimentsua al da?’ eta era horretako galderak egin zizkioten aitari epaiketan»



epaiketaren zain egotea. Premiazko neurriak ere eskatu nituen 2019ko urrian. Edozein abokatuk esango dizu normalean hilabete batean ebazten direla eskaerok. Nire kasuan oraindik ez dut erantzunik. Normalena litzateke epaiketaren zain gauden artean haurra nirekin egotea. Forentseak txosten garbia egin du haurrari egin zaion kalte psikiko, psikologiko eta fisikoaren inguruan. Forentseak garbi esan du umea txarto dagoela. Baina, hala ere, astean bitan bakarrik ikusten dut eta duela gutxira arte, erabat zaindutako bisitak izaten ziren». Gurasoen Alienazio Sindromea aplikatzen den kasuetan –dena delako izenarekin–, oso norabide interesatua izaten du amarengan eta haurraren gan jartzen den fokua. Amak egiten duen edozer gauza epaitua izaten da. «Adibidez, pentsa haurrak gazta daukala meriendatzeko, baino amari esaten dio ez duela gazta nahi. Amak ogitartekoa aldatu eta txokolatea

jartzen badio, hezitzaileak txostenean jasotzen du amak amore ematen duela haurraren xantaia emozionalaren aurrean. Hori ez da hezkuntza ona. Beraz, ondorioztatzen du ama ez dagoela prestatuta haurrari behar duen hezkuntza emateko».

Duela aste batzuk Iruñe Costumeroren alabak lagun batzuei aipatu die, jolasean zebiltzan bitartean, aitak eta aitona-amonek jokabide desegokiak dituztela berekin. Aitak Aldundira deitu eta gertatutakoa kontatu zuen. «Aldundiko arduradunek foru agindu bat atera dute esanez ez didatela bisita gehiago emango, ez delako onuragarria alabarentzat nirekin egotea».

Gurasoen Alienazio Sindromearen itzalpean, horrela gertatzen dira gauzak; amak edota umeak esandakoak ez dauka inolako baliorik. «Sentitzen dut nik bizitzen nuen egoera bati izena jarri nionean –eta nahiago dut ez erabili hitz batzuk–, makineria guztia nire eta nire haurraren kontra jarri zela. Fokua amarengan eta haurraren gan jartzen dute eta horrek gertatzen ari dena erabat desitxuratzen du».

Berez haurraren ongizatea eta babesgabetasuna ziurtatzeko sortuak omen diren tresnak kontrako eragina dute kasuotan. «Kontraesan handia da. Amak babesten duen haurrak garbi esaten du ez duela aitarekin egon nahi, eta zer egiten dute? Bada, aitari zaintza eman eta aitarekin bidali. Haurraren hitzari balioa kentzen diote eta zigortu egiten dute».

Alabarekin bisita egin ondoren hitz egin du GAUR8rekin. «Haurra etsituta ikusten dut eta izugarria da zortzi urteko haur bat horrela ikustea. Baina nik itxaropena daukat, frogarriak ditut eta alaba nirekin ekartzea lortuko dudala espero dut. Ez daukat hori sinestea beste erremediorik. Denbora asko daukagu berreskuratzeko eta zauriak sendatu behar ditugu. Dena kendu didate, jota nago, baina, hala ere, egunero indarra atera behar dut borrokan jarraitzeko. Nola demontre errendituko naiz?».